

KOSTUEN EGITURA

Edozein produkturekin gertatu ohi den bezala, gure produktua ekoitz dadin kostu batzuk egotea beharrezkoa a nahi eta nahi ez. Gure kasuan aurreikusitako kostuak honako hauek dira.

Alde batetik, kontenedorea izango dugu. Kontenedorea guk zuzuenean ekoitziko ez dugunez, enpresa batek guretzat ekoiztea beharko dugu. Kasu honetan, hainbat enpresek ematen dizkiguten prezioak alderatu ostean, kontenedore bakoitzarentzat 400 euro inguruko prezioa zehaztu dugu, merkatuko egungo prezioetan oinarrituta.

Bestetik, prentsa beharko dugu. Honetarako, prentsak ekoizten dituen enpresa espezifiko batekin jarri gara harremanetan, LLC Norte hain zuzen ere. Enpresa honek kontenedoreetan instalatzeko espezifiko den prentsa bat ekoizten du, gure kontenedorearen sorkuntzarako bereziki baliagarria dena. Hortaz, prentsa hori erabiliko dugu gure kontenedore guztietan. Horren kostua 2.000 eurokoa da. Hasiera batean garestia dirudien arren, bere funtzioek prezioa erabat justifikatuta egotea eragiten dute. Kalitatea da gure negozio-modeloak funtzionatzea ahalbidetuko duen aldagaia.

Horretaz aparte, edozein enpresak bezala ezinezkoa da kostu-prezioan ekoiztea gure produktua. Garraioa, logistika, marketinga publizitatea eta gure produktuari deribaturiko kostu horiei aurre egiteko, kontenedore bakoitzeko 235,2 euroko marjen bat zehaztu dugu, gure enpresaren hobe beharrez.

Horrenbestez, eta matematika basikoak ahalbidetzen duen kalkulo erraz baten bidez kalkula daitekeen bezala, bezeroari kontenedore bskoitzeko plazaratuko diogun kostua 2.635,2+ BEZ eurokoa izango da. Horrela ikusita neurrigabeko kostua dela pentsa dezakete bezero askok, baina "balio proposamena" atalean azaldu bezala, produktuak izugarritzko abantailak eskaintzen ditu.

Kontenedorea	400 euro
Prentsa	2.000 euro
Errentagarritasuna	235,2 euro
Toatala	2.635,2+BEZ